

HERNANI kronika

2004 urtea
Abenduak 28
Astearteak
Alea: 1334
www.kronika.net

Komuna jarri dute Tilosetan kristalezko paretekin, higiene eta diseinuan Europako azken aurrerapenak erabilita

■ Komuna erabat higienikoa da: ez da ezer ukitu behar, sensore bidez funtzionatzen du eta bakarrik garbitzen da, atera eta atea ixtean ■ Alemanian hasi ziren erabiltzen komun hauetek duela bost urte.

KRISTALEZKO pareta duen komuna jarri dute Tilosetan. Komun honen bereizgarria da Europako punta-puntako teknologia erabili dutela era bat higienikoa izateko. Beste bereizgarria da, komunaren pareta kristalez dagoela egin eta kanpotik isplua bada ere, barrutik kanpoalde guztia ikusi litekeela. Komuna atzo jarri zuten eta asmoa da sagardotegi denboraldirako inauguratzea.

Komun hauetek Alemanian hasi ziren probatzen. Komerzializatzen ari den enpresak esan duenez, uste baino arrakasta haundiagoa izan du eta erabiltzaile gehienek bat egiten dute gauza batean: "hasieran impresio pittin bat egiten duen arren denok probatu dugu bigarren aldiz".

Alemaniako ereduak

Komuna jarri duen enpresaren hitzetan, Alemanian duela bost bat urte hasi ziren komun hauetek erabiltzen, Municheko zerbeza ferian. Munichen, arazo larria bihurtzen ari zen jendeak kalean pixa egitea. Honi aurre egiteko soluzioetako bat komun mota hau jar-



Komun barrukaldetik kanpoa ikusi daiteke. Kanpokaldetik, aldiz, isplua da.



tza izan zen, eta neurri haundi batean lortu zuten arazoa erremediatzea. Zergatia galdeztean, zera diote, "kalean pixa egiten duen jendeak morbo puntu bat bilatzen du eta, sistema honek hori ematen dio". Hernanin arazo honegatik keja asko izaten direnez, urtebeko proba egitea erabaki da.

Erabat higienikoa

Tilosetan jarri duten komun honetan ez da ezer ikutu

behar, ez da bonba bota behar, ezta iturria ireki behar ere, komunak sensore bitartez funtzionatzen baitu. Komuna erabili ondoren, atea ixterakoan, ur txorrotada botatzen du komunak eta dena garbi uzten du berriro ere.


Neska eta mutilentzat

Tilosetan momentuz komun bakarra jarri dute teknologia hau garesti xamar ateratzeko delako, baina higienean dituen

abantailak direla eta, neska eta mutilek erabili lezakete.

Komuneko pintadak

Tilosetako komun berri honetan pintadak egiteko arbela jarri dute. Izen ere, enpresak dioenez, komunetan pintadak egiteko dagoen ohitura dela eta "arbel moduko bat jartzea egokia da, jendearen espresso artistikoa bultzatzeko, baina beti ere higiene optikoa mantenduz". □



Sandiusterri bete jende izan zen bertso jaialdian.

BERTSO LATA


Karidadeko Benta

JON Maia bertsolariak eta berre taldeak *Amore Amore* diskoberrria aurkeztuko dute gaur Biterin, Bertsolataren barruan. *Amore Amore* bigarren diskoa dute eta Durangoko azokan salduenetakoia izan da. Emanaldia 20:00etan da. Bihar txapelketa azkarra egingo da kalean, 19:00etan. □


KANTUZ ABENBATZA

Gabonetako Eliz Musika kontzertua bihar Milagrosan

KANTUZ Abesbatzak Gabonetako Eliz Musika kontzertua emango du astearte Milagrosan, 20:00etan. Abesbatza gonditatu Andoaingo Alberto Aguirre izango da. □



Iturriaga, 3 - Tel.: 943 556 564 - HERNANI



andrekale35
Kardaberaz, 35 - Hernani.
Tel.: 943 33 60 05 - Fax: 943 33 59 76
andrekale35@euskalnet.net

HORTZ KLINIKA - Oiarbide - Otxoa -



Orain helbide berrian aurkituko gaituzu:
ORKOLAGA 3 - 5 behea - Tel.: 943 55 76 33

■ PELOTA

Oier Mendizabal eta Iñigo Diaz txapeldun DV Torneoan

IÑIGO Diaz eta Oier Mendizabalek 22-20 irabazi zuten DV Torneoko finala, Berasaluze-Aprainen kontra Zarautzen. Partidu gogorra izan zen eta tanteoan gorabehera izan zituena. Diaz-Mendizabal hotz antxa atera eta 1-5 galtzen hasi ziren. Hor, partiduari buelta eman eta 10-5 jarri ziren. Partiduak ez zuen nagusitasun garbirik izan eta 14-14 eta 20-20 ere egin zuten. Azken bi tantoan urdinen aldera joan eta Diaz-Mendizabalek irabazi zuten txapela. □

ERREGEAK

Ume eta gaztetxoei deia, bihar Biterin

ERREGE Kabalgatan paje gisa atera nahi duten ume eta gazteei guztiak asteazkenean Biterira joateko deia egin die Kabalgatako antolakuntzak, jantziak jasotzen. Deialdia arratsaldeko 20:00etarako da.

'Ilargiaren sekretua', azken emanaldia

ILARGIAREN Sekretua umenitzako pelikularen azken emanaldia izango da gaur Biterin, goizeko 11:00etan. □

'Nafarroa osoaren historia irudietan', Biterin

GAURTIK ostegunera bitartean Nafarroako historiari buruzko erakusketa egongo da Biteri kultur etxeen. Nabarralde Elkartea antolatu du eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. □



Xake txapelketako sarituak. Isidro Esnaola, Mikel Apezetxea eta Breogan Estevez.

Herriko Xake txapelketatik Gipuzkoako Ligara

■ Mikel Apezetxeak igandean jantzi zuen Hernaniko txapela ■ Partida azkarren txapelketa Breogan Estevezek irabazi zuen ■ Orain Gipuzkoako Liga dator.



HERNANIKO IVgarren Xake txapelketako sariak igandean banatu zituzten. Mikel Apezetxea izan da aurtengo txapel-duna, eta Isidro Esnaola txapeldunordea. Hirugarren postuan, Breogan Estevez gelditza eta laugarren Josep Barandiaran. Txapela eta trofeo-

ak ez ezik, sarituek zeramikako xake taula ere jaso zuen, Aitor Ruiz de Eginok egin eta eman.

Sari banaketa ekitaldia Goiz Argi tabernan izan zen eta ondorenean xake partida azkerren txapelketa jokatu zen. Hor Breogan Estevez gelditu

zen aurrena, Apezetxea bigaren, Esnaola hirugarren eta Altuna laugarren.

Herriko txapelketa bukatuta, Hernaniko xake jokalariak Gipuzkoako Liga izango dute hurrengo zita. Azken hiru urteetan hiru maila igo eta aurten preferentean jokatuko dute. □



= KROMÍKIA =



EA-EAJ: "Autogobernu haundiagoa, euskaldunok hobeto bizitzeko"

HERNANIKO EA-EAJren iritziz, Eusko Jaurlaritzak autogobernu haundiagoa izateak euskaldun guztiak ongizate-maila haundiagoa izatea dakin. "Demostratuta dago" diote. Zentzu horretan, koalizioak adierazi du Ibarretxe planarekin "Jaurlaritzak eskubidez dagozkion konpetentzia guztiak exijituko" dituela.

Konpetentziak

Ibarretxe planarekin Jaurlaritzak izaera orokorreko zortzi konpetentzia izango lituzke: hezkuntza, kultura eta kirol politikak; hizkuntza politika eta euskera; gizarte eta osasun politikak; hazienda eta ondarea; politika fiskala, tributarioa eta finantziera; lurraldetako antolaketa, etxebizitza eta ingurugiroa; garraio eta azpiegitura politika; eta, aktibitate ekonomikoa eta sektoriala bultzatu eta antolatzeko politika, ikerkuntza zientifiko eta teknikoa barruan direla.

Izaera espezifikoa duten konpontentziak, berriz, hiru

puntutan bilduta daude: 1) segurtasun politika, 2) emplegu politikak eta politika sozio-laboralak, eta 3) babes sozialeko politikak.

Segurtasun politikari dagokionez, Ertzaintzaren ardura izango da pertsona eta ondasunen segurtasuna. Estatuko segurtasun indarrak Estatuaren konpetentziatzak bakarrik arduratu dira. Segurtasun batzorde misto batek koordinatuko lituzke Estatuari eta Euskadiri legezkiokoen gaiak.

Politika soziolaboraletan, Jaurlaritzak konpetentzia osoa izango luke empleguan, formazioan, prebentzioan eta Seguritate Sozialean. Estatua eta Europarekin, elkarlana.

Babes sozialari dagokionez, 3 puntu: 1) Eusko Jaurlaritzak arautu eta gestionatuko ditu aurrikuspen soziala eta Seguritate Soziala; 2) Aurrekontu propioak Seguritate Sozialeko kuotak biltzeko eskumena; 3) Estatua kontzertu ekonomikoa. □

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, acupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Emakume batek pisua behar du alokairuan Hernanin. 690 39 45 01

VITAL KUTXA. 70 plaza libre. Laster hasteko. Matrikula zabalik. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAUR HEZIKETA. Haurtzandegi publiko eta haur eskolatzen plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

TXOFERRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan laster hasteko. Doako informazioa. 943 43 41 27.

SUKALDE LAGUNTZAILEAK. Eskola, erresidentzia eta Eusko Jaurlaritzan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA. Udaletan laster hasteko: Hernani, Usurbil, Irún, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrala, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Doako informazioa. 943 43 41 27.

PEOIAK, elektrizistak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Erakunde publikoetan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

UDALTZAINAK. 25 plaza bete behar dira: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irún, Arrasate. Doako informazioa. 943 43 41 27.

LABORATEGIA. Teknikariak, auxiliarrak. Plaza libreak Udaletan, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK. Plaza libreak, zaintzaileentzat. Postu libreak eskola publikoetan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

BASOZAINA, Udaletxe, Foru Aldundi eta Administrazio publikoan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulutorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8
☎ 943 551933
- Gauez: Correa Perkaiztegi 8
☎ 943 551933

Alai Zubimendi